
EUSKARA BATZORDEA

EBPN - GESTIO-PLANA 2009

EKINTZAK ESPARRUKA - (2009-01-27eko zirriborroa)

Sarrera

Bergarako Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko apirilaren 28an onartu zuen Bergaran Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Komenigarria iruditzen zaigu bertan finkatzen ziren irizpide nagusiak gogoratzea. Hona hemen, hitzez hitz, bertan jasotakoa:

- Herriz gaindiko ikuspegia. EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoan hainbat esparrutan (Familia, Lan-mundua, IKT, Hedabideak...) bailara mailako bilguneak eratu eta gaiak elkarrekin lantzea. Orain arte ere ekintza ugari landu dira bailara mailan baina uste dugu komeniko litzatekeela bide hori sakondu eta datozen 4 urteetan elkarrekin bideratu dezakegunaren gaineko gogoeta bultzatzea.

- Planaren batasuna eta zeharkakotasuna. Esparru arteko sinergiak lantzea. Egun EBPNn garatzen diren esparruak elkarren eraginean daude guztiak, eta beraz osotasuneko ikuspegia izatea garrantzitsua da, azpibatzerde bakoitzak bere esparruaren ikuspegia gaindituz, gainerako azpibatzerdeen kontzientzia hartuz, eta gaiak, ekimenak, e.a. planteatzerakoan beste esparruak aintzat hartuz. Corpusa, Euskalduntze-alfabetatzea eta IKTak zeharlerro gisa identifikatu dira Plan Estrategikoan, alegia, esparru guztietan eragina duten arlo gisa.

- Aurrehartze politika. Zenbait esparrutan (merkataritzan, denda berrien kasuan; administrazioan, langile berrien kasuan...) kontuan hartu izan da. Esparru guztietan aurrehartzeko politika neurriak definitu.

- Gizartearen eta udal agenteen parte hartzea bideratzea. Lehengo egituran moldaketatxo batzuk sartu da Aholku batzordeari dagokionez. Bestalde, komenigarritzat jotzen da lan-taldeetako kideen partehartzea hobetzeko dinamikak lantzea eta azpibatzerde gehiago sortzea edo daudenak sendotzea.

Irizpide orokor horiek kontuan hartuta landu nahi da 2009ko Gestio-plana. Txostenak EBPNren baitan 2009. urtean bideratu nahi liratekeen egitasmoak dakartza, esparruz esparru. Esparru bakoitzeko ildoan gaineko azalpen bat jaso dugu hasieran eta jarraian ekintzak, bakoitzerako aurreikusitako aurrekontuarekin. Aurrekontuari dagokionez, joan zen urteko kopuru berarekin moldatu da gestio-plan hau.

Amaitzeko, esan dezagun, goian adierazten den moduan, hau oraindik zirriborroa dela eta, egoki iritzitako edozein ekarpen egin dakiokela.

Ekintzen sailkapena

Urteko kudeaketa planeko ekintzak EBPnko esparruen arabera antolatu ditugu, hasteko eta gero esparru bakoitzaren barruan, ekintza-motaka. Hona hemen bakoitzaren sailkapena:

EBPNko esparruak:

- 0. Planifikazio eta ebaluazio orokorra
- 1.c. Familia
- 1.a. Irakaskuntza
- 1.b. Euskalduntze-alfabetatzea
- 2.a. Administrazioa
- 2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
- 2.d. Enpresa-mundua
- 2.h. Esparru soziokulturala
- 3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
- 3.b. Hedabideak
- 3.c. Liburugintza
- 4. Itzulpena/Zuzenketak
- 5. Elkarte orokorrentzako laguntza

Ekintza motak:

- 00. Arautzea, hizkuntza irizpideak finkatzea
- 01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra
- 02. Jarraipena eta ebaluazioa
- 03. Hitzarmenen dinamizazio orokorra:
- 04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena
- 05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduuzko material, ikastaro, erabilgune...
- 06. Laguntza teknikoak: zuzenketak, aholkularitza, itzulpenak...
- 07. Dirulaguntza
- 08. Ikerketa
- 09. Barne gestioak eta lan-gaiak
- 10. Aurrekontu partidak, beste zerbitzu batzuek gestionatuak

0. Planifikazio eta ebaluazio orokorra

Esparruko ildo nagusiak Honako hauek dira 2008-2011 Plan Estrategikoan finkatutako irizpide nagusiak:

- Esparruen arteko sinergiak sortu eta planaren irudi bateratuagoa eman.
- Bailara mailan lantzekotzat jotzen diren esparruetan bailara mailako egiturak sortzea.
- Esparru bakoitzean aurrehartze politikari dagokionez, kontuan hartu beharreko neurriak definitzea.
- EBPn modu partehartzailean bideratzea, bertako egiturak (Euskararen Aholku batzordea, azpibatzerdeak, EBPnko Batzar Orokorra, ...) baliatuz.

Irizpide horien betetze-maila hobetzea da 2009rako helburu nagusia. Horretarako, komenigarritzat jotzen dugu, besteak beste:

- Teknologia berrien erabileran formatu eta horiek baliatuz, EBPnko batzordeen parte hartzea sendotze eta euren arteko ezagutza eta elkarlana indartzea.
- UEMA barruko funtzionamendua sendotzea eta bailara mailako funtzionamendu-modua argitu eta finkatzea.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
0.01.b.1. 2009ko gestio-plana eta aurrekontua egitea.	0	EBPNren barruan, 2009an bideratuko dien egitasmoak jasoko dira gestio planean. Nagusiki Euskara Zerbitzuak bideratuko dituenak izango dira, baina baita beste batzuek bideratuko dituztenak ere, baldin eta EBPn barruan kokatzen badira eta nolabaiteko jarraipena egiten bazaie.
0.01.b.2. 2010eko gestio plana eta aurrekontua egitea.	0	2010erako gestio plana eta aurrekontua egitea EBPnko egiturako (EABko azpibatzerde, EAB, Euskara Zerbitzu, Euskara batzorde) partehartzearekin.
0.01.c. EBPnko Batzar Orokorra bideratzea.	0	EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoan EBPnko Batzar Orokorra sortzea eta urtean behin jardunaldi batean elkarteak planteatzen da. Osaerari dagokionez, Euskara batzordean eta azpibatzerdeetan dabilzan guztiak gonbidatuko lirateke eta gai orokorrak lantzeko eta EABn landu izan diren gaiak sozializatzeko balioko luke.
0.01.d. Euskararen Aholku Batzordearen jarduna bideratzea.	1000	EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoan Euskararen Aholku batzordea birmoldatzea planteatu da. Maiztasunari dagokionez 3 hilean behin elkartuko litzateke eta osaerari dagokionez, Euskara batzordekoak, Euskara Zerbitzukoak eta bilera bakoitzerako gonbidatuko lirateke eta espezialistek osatuko lukete. Esparruz gaindiko gaiak, ikuspegi orokorrak... landuko litzuzke.
0.01.e. Euskara batzordearen bilera deiak eta aktak	0	Euskara batzordearen bilera deiak eta aktak egitea.
0.01.f. Euskara Zerbitzuaren koordinazio-bilerak.	0	Urteko kudeaketa plana modu bateratuan bideratzeko koordinazio-bilerak egitea.

0.01.g. Esparruen arteko sinergiak eta zeharkakotasuna zaintzea.	0	Egun EBPNn garatzen diren esparruak elkarren eraginean daude guztiak, eta beraz osotasuneko ikuspegia izatea garrantzitsua da, azpibatzorde bakoitzak bere esparruaren ikuspegia gaindituz, gainerako azpibatzordeen kontzientzia hartuz, eta gaiak, ekimenak, e.a. Planteatzerakoan beste esparruak aintzat hartuz. Corpusa, Euskalduntze-alfabetatzea eta IKTak zeharlerro gisa identifikatu dira Plan Estrategikoa, alegia, esparru guztietan eragina duten arlo gisa. Plan Estrategikoa jaso dira puntu hau kontuan hartzeko zenbait neurri: - Zeharkako beharrak identifikatzeko fitxak egin (zeharlerroek) eta esparruetara pasatu. - Zeharlerroetan sortuta dagoen materiala didaktizatu, esparruen beharrak asetzeko. - Esparruen eskariari begira egindako eskaintza landu. - Azpibatzordeetako bilerene gai-ordenean zeharkako hiru lerroen gaiak sartzea. - Zeharkako lerroen bileretan gainerakoak kontuan hartzea.
0.01.h. Bailarako egitasmo komunak zehaztea eta bideratzea.	3000	Azken urteetan hainbat ekimen bideratu izan dira bailara mailan. EBPN 2008-2011n bide hori indartzea proposatzen da. Oraindik erabakitzeke dago 2009an ze ekintza bideratuko den eta ekintzen kostua Udalen ekarpenetatik ordainduko den ala Debagoieneko Mankomunitateak hartuko duen bere gain. Horregatik aurrekontuan aliritziko kopuru bat jarri dugu.
0.01.i. Diputazioko UdalEkin programan parte hartzea.	0	GFAk probintziako Udaletako EBPN programak koordinatzeko UdalEkin izeneko programa jarria du abian. Programa horren baitan antolatzen diren ekintzak jasoko dira hemen.
0.01.j. HPSrekiko koordinazioa: Irati programa elikatzea.	0	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Udaleko erabilera planetarako eta EBPNrako baliagarria den aplikazio bat moldatu du. Aplikazio hori aztertu eta egokitzat joz gero, elikatzea planteatzen da.
0.01.l. UEMA. DEIADARKA teknikarien foroan parte hartzea eta urteko kuota.	16000	Deiadarka UEMAn herrietako teknikarien foroa da. Horretan izango den partehartzea jasoko da hemen.

02. Jarraipena eta ebaluazioa

0.01.c. 2009. urteko aurrekontua kudeatzea, tresna informatiko egoki baten bidez.	0	Aplikazio informatiko txiki bat osatua dugu urteko gastuen jarraipena egiteko. Horretan oinarrituta, 6 hilean behin GFAko GEIZ aplikazioko ordainketak pasako dira aplikazio horretara, aurrekontuaren egoerari buruzko txostenak ateratzeko.
0.02.b. 2009. urteko balorazio txostenak egitea.	0	Bi eratako balorazio-txostenak egitea aurreikusten da: lehenengo 6 hilabeteen bukaerako balorazio-txostena, urteko gestio-planaren bilakaera azalduko duena eta urte amaierakoa, osatuagoa izango dena.
0.02.c. Udal adierazleen sistema elikatzea.	0	Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat udalekin lankidetzan, Udal adierazleak jasotzeko programa bat bideratzen du. Programa horretan finkatutako eskarako adierazleak jaso eta eta 2008ko datuekin aplikazioa elikatzea izango da egin beharreko lana.
0.02.e. Jarduera bakoitzaren ebaluaziorako gida osatu eta betetzea.	0	Jarduera bakoitza baloratzeko kontuan hartuko diren adierazleak eta bestelako ezaugarriak finkatu eta gida osatzea. Aurreko urteetan urratsen bat eman da gaiaren inguruan baina bukaera ematea falta da. EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoa Elhuyarrek proposatu ditu ekintza bakoitzerako adierazleak. Horiek eta aurretik egindako lanak oinarri egokia izan litezke. Berez, espediente bakoitzaren jarraipenarekin lotuta egon liteke, han jaso bailitezke aurrerantzean aintzat hartu beharreko puntuak.
0.02.f. Kaleko erabileraren neurketa, 2009.	1000	Urtero bezala, kaleko erabileraren neurketa egitea eta emaitzak egoki zabaltzea. Bere momentuan aztertzea izan liteke ohiko neurketaz gain, bestelakorik egin behar den.

04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena

0.04.a. EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoa gizarteratzea.	2000	EBPN 2008-2011 Plan Estrategikoa gizarteratzeko komunikazio-plana diseinatzea, honakoak kontuan hartuaz: hasierako aurkezpena, urtean zeharreko ekintzak...
0.04.b. Udalaren publizitatea eta propaganda.	3000	Euskara batzordearen publizitatea gestionatzea: iragarki-eskeak jaso, iragarki-diseinuak proposatu...
0.04.c. Herritarren soziolinguistikazko kontsultak.	0	Herriko egoera soziolinguistikoari buruz herritarrek egiten dituzten kontsultei erantzutea.
0.04.d. Beste entitate batzuetako kontsultak.	0	Bergaran abian diren programen inguruan beste entitate batzuetatik jasotzen diren kontsultei erantzutea.
0.04.e. Soziolinguistika Klusterra, normalizazio-kasu-aurreratuak. Liburuaren aurkezpen eta zabalkundea.	0	Soziolinguistika Klusterra hizkuntza normalizazioaren arloan eredugarri izan litezkeen entitateen gaineko liburuxkak argitaratzen hasi zen 2007an. 2008an beste bi landu ditu eta bietako bat Bergarako Udalaren gainekoa da. Klusterrarekin berarekin landuko da zer zabalkunde emango zaion.
0.04.f. UEMArekin gaineko gaien komunikazioa.	0	UEMArekin lotutako komunikazio eta sentiberatze-ekintzak bideratzea: urtean bitan UEMArekin berripapera banatzea, Udalerri euskaldunen garrantziaz sentsibilizatzea eta UEMA eguna bultzatzea,
0.04.g. Behatokiarekiko hitzarmena, hizkuntza eskubideen gainekoa.	1500	Behatokiarekin hitzarmena: Udal langileak eta herritarrak hizkuntza eskubideen inguruko urraketak salatzea bultzatu eta horretarako bitartekoak jartzea.

05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: eredu material, ikastaro, erabilgune...

0.05.a. 2010eko egutegia.	3200	Herritarrei eta herriko entitateei banatzeko Euskara Zerbitzuaren egutegiak (txikia eta handia) osatzea. Egutegia argitaratzen parte hartzen dutenen arteko koordinazio-lana egitea.
----------------------------------	------	--

09. Barne gestioak eta lan-gaiak

0.09.b.9. Dirulaguntzen arautegia berraztertu eta bideratzea.	0	Udalak hainbat dirulaguntza ematen dizkie bai entitateei eta bai herritarrei. Laguntzok emateko arautegia onartu zen 2006an. Une honetan zenbait aldaketa proposatzen denez, hori moldatu eta arautegi berria onartu eta horren zabalkundea egin beharko da.
--	---	--

0. Planifikazio eta ebaluazio orokorra esparruaren aurrekontua guztira: 30700

1.a. Irakaskuntza

Esparruko ildo nagusiak Arlo honetako jarduerak koordinatzeko oso baliagarria da ikastetxeetako euskara arduradunekin, Udaleko Hezkuntza teknikariarekin eta Jardun elkartearekin antolatutako azpibatzerdea eta lankidetzaren jarraitu nahi da. Azpibatzerdean zenbait gai koordinatzen dira, baina bereziki bi aipatuko ditugu:
1.- Bertako euskara aberasteko eta akatsak zuzentzeko "Gehixago eta Hobeto" programa.
2.- DBHko ikasleen motibazioa areagotzeko saioak eta euren lagunarteko hizkera lantzeko saioak.
Lehenengo arloari dagokionez, 2008an zenbait moldaketa planteatu dira eta bigarrenari dagokionez ere, gogoeta bat egin nahi da, bereziki, oraingo 5-6 orduko saio horiei beste zerbaitekiko lotura eta jarraipena bilatze aldetik.

Bestalde, azken urteetan ahalegin berezia egin da haur eta gazteen kalitatea hobetzeko programa bideratzen eta euskara maila apaleneko umeentzako (bertako zein etorkinentzako) errefortzuetan, eta 2009an ere jarraipena eman nahi zaie ekintza horiei.
Horretaz aparte, irakaskuntza ez-arautuko akademiarekin ere harremana bideratu da 2008an EINGOU hitzarmenaren bidez eta hauekiko elkarlana gehiago jorratu nahi da.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
1.a.01.a. Irakaskuntzako azpibatzerdearen bilerak eta jarduerak dinamizatu	0	Irakaskuntzako EBPNren barneko azpibatzerdea dugu 2005etik. Bere zeregin nagusia Ulibarri programa (Euskaraz Bizi barne) eta EBPN koordinatzea eta "Gehixago eta Hobeto" programaren jarraipena egitea da. Bilera horietako gorabeherak jasoko dira hemen: aktak, deiak, txostenak...
1.a.01.b. Udaleko hezkuntza arloko jarduerak koordinatzea.	0	Udaleko zenbait zerbitzuek (Kultura, Gizarte Ongizatea eta Kirol Zerbitzua bereziki) Hezkuntza arloan garatzen ditugun ekintzak koordinatzea da helburua.
03. Hitzarmenen dinamizazio orokorra		
1.a.03.a. Akademiaren euskarazko eskaintza sustatu Eingou hitzarmenaren bidez.	0	2008an sinatu zen herriko hainbat entitatearen artean Eingou hitzarmena. Tartean dira hainbat akademia ere. 2009an hitzarmen hori dinamizatzen eta jarraipena egiten segituko dugu.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
1.a.04.a.1 DBHko ikasleentzako motibazio-saioak bideratu. 2008-09	0	Lasarte-Oriako Ttaku euskara elkarteak motibazio saio batzuk ditu prestatuak eta azken urteetan DBH-4ko taldeei eskaini dizkiegu. Helburua soziolinguistikan oinarrituz hizkuntzen inguruan, eta bereziki euskararen inguruan, gogoeta egitea eta gazteek euskararekiko jarrera kontzientea hartzea da. 2008-09an ere eskaini dira.
1.a.04.a.2. DBHko ikasleentzako motibazio-saioak bideratu.2009-10	5600	Lasarte-Oriako Ttaku euskara elkarteak motibazio saio batzuk ditu prestatuak eta azken urteetan DBH-4ko taldeei eskaini dizkiegu. 2006-07tik Jardunek ere parte hartu du saioetan, Bergarako egoera ere aztertuz. Helburua soziolinguistikan oinarrituz hizkuntzen inguruan, eta bereziki euskararen inguruan, gogoeta egitea eta gazteek euskararekiko jarrera kontzientea hartzea da. 2009ra begira ekintza praktikoren batekin lotzeko ahalegina egingo dugu: Udalarekin harremanak euskaraz...

1.a.04.b.1. Lagunarteko hizkera lantzeko saioak bideratu. 2008-09	0	Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkarteak hizkera bizia lantzeko saio batzuk ditu prestatuak eta 6 orduko saioak eskaini ditugu azken urteetan DBH-2ko taldeetan. Helburua egoera informaletarako ere (adarra jo, ligatu, haserretu...) euskarazko erregistro kolokialak lantzea da eta, bide batez, euskararekin jolas egin eta ondo pasatzea. 2008-09an ere bideratu ditugu.
1.a.04.b.2. Lagunarteko hizkera lantzeko saioak bideratu. 2009-10	4100	Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkarteak hizkera bizia lantzeko saio batzuk ditu prestatuak eta DBH-2ko taldeetan eskaintzea interesgarri ikusten da. Helburua egoera informaletarako ere (adarra jo, ligatu, haserretu...) euskarazko erregistro kolokialak lantzea da eta, bide batez, euskararekin jolas egin eta ondo pasatzea. 2009an gaiaren inguruko gogoeta bultzatuko da: zein leku du euskalkiak, nola eman jarraipena, zela landu aurreragoko ikasturteetan...
1.a.04.c. "Gazteak eta Administrazioa" eta Udalarekin Euskaraz DBH-4an.	0	"Gazteak eta Administrazioa" Debagoieneko udalen artean sortutako unitate didaktikoa da, urtero ikastetxeetan banatu eta landu ohi dena. Horren erabileraren jarraipena egiten da eta, aldi berean, ikasleei "Udal Idatziak Euskaraz" jasotzeko gonbita egiten zaie. Era berean, "Idatziak" liburuxka ere banatu ohi zaie eta unitatearekin batera landu ohi da.
1.a.04.e. Autoeskoletan euskaraz.	1000	Gazteek autoeskoletan gidatzeko baimena ateratzeko ikastaroak eta azterketak euskaraz egin ditzaten animatzeko ekintzak bideratzea: sentiberatze kanpainak, materialak, dirulaguntzak...

05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduzko material, ikastaro, erabilgune...

1.a.05.a.1. Lehen Hezkuntzako umeentzako euskara errefortzuak bideratzea. Goi maila. 2008-09	0	Euskararekin arazoak dituzten umeei zuzenduta dago egitasmo hau. Jardueraren helburua ikasleok Lehen Hezkuntza amaitzen dutenean normaltasunez euskaraz hitz egiteko gai izatea da. LHko lehen mailatik 6. mailara bitarteko haurrei (San Martin, M. Lagundia eta Aranzadikoei) astean bi egunetan errefortzu-saioak eskaintzen zaizkie. Udalak koordinatu eta Jardunek eskaintzen ditu saioak.
1.a.05.a.2. Lehen Hezkuntzako umeentzako euskara errefortzuak bideratzea. Goi maila. 2009-10	0	Euskararekin arazoak dituzten umeei zuzenduta dago egitasmo hau. Jardueraren helburua ikasleok Lehen Hezkuntza amaitzen dutenean normaltasunez euskaraz hitz egiteko gai izatea da. LHko lehen mailatik 6. mailara bitarteko haurrei (San Martin, M. Lagundia eta Aranzadikoei) astean bi egunetan errefortzu-saioak eskaintzen zaizkie.
1.a.05.b. Euskara errefortzuak bideratzea. Iraileko barru-ikastaroa.	0	Ikasturtean zehar euskara errefortzuetan ibili diren haurrei edo irakasleen iritziz beren euskara maila sendotzea komeni zaien eskaintzen zaie. Helburu nagusia hau da: udako etenaren ondoren, ikasturte berriari hasiera ematerakoan ikasleok izango duten hizkuntza jarraioa bizkortzea. Azkeneko urteetan 4 eguneko barru-ikastaroak eskaini izan zaizkie eta aurten ere horrela egitea planteatzen da.
1.a.05.c.1. Haur eta gazte etorkinentzako euskara errefortzuak bideratu, 2008-09	0	Etorkinek premia handiak dituztela eta, 2003-04 ikasturteetik eskaintzen dira Bergaran ume etorkinentzako euskara errefortzuak eta 2004-05 ikasturteetik gazteendakoak. Helburua: ikastetxeetan egiten den lana osatu eta beren euskara maila hobetzea. Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletan ere badihardute eta horiekin koordinatuta egiten da lana. Bergaran, une honetan, Jardunek ematen ditu LHko umeen saioak eta Udal Euskaltegiak DBH gazteenak.
1.a.05.c.2. Haur eta gazte etorkinentzako euskara errefortzuak bideratu, 2009-10	18000	2003-04 ikasturtean jarri ziren abian ume etorkinentzako euskara errefortzuak eta 2004-05 ikasturtean gazteendakoak. Helburua: ikastetxeetan egiten den lana osatu eta beren euskara maila hobetzea. Debagoieneko Mankomunitateak materiala sortzeko eta koordinaziorako laguntza ere eskaintzen du eta bailarako beste herriekin koordinatuta egiten da lana. Horrela jarraitzea planteatzen da .
1.a.05.d. "Gehixago eta Hobeto" programa. Ikasle, guraso eta irakasleei ahozko euskara aberasteko baliabideak eskaintzea.	15000	"Gehixago eta Hobeto" programaren barruan zenbait moldaketa egin eta hurrengo urteetan jarraitu beharreko bidea zehaztu zen 2008an. Eta urte horretan sinatu zen AEKrekin 2008-09 ikasturtean bideratu beharreko ekintza nagusiak bideratzeko hitzarmena, bereziki, hainbat material interneten jartzeko eta Apatxi aldizkaria sortzeko. Materialon erabilera ahalik eta gehien indartzea izango da 2009rako helburu nagusia.

07. Dirulaguntza

1.a.07.a.1.Eskolek eskola orduetatik kanpo antolatutako errefortzuetarako dirulaguntzak bideratzea. 2008-09		Eskola orduz kanpo euskara errefortzuak antolatzen dituzten ikastetxeei dirulaguntza eman ohi die Udalak. 2008-2009 ikasturterako laguntzen eskariak ere jaso eta onartu ziren 2008ko aurrekontuaren kontura. Horien jarraipena egitea izango da, beraz, helburua.
1.a.07.a.2.Eskolek eskola orduetatik kanpo antolatutako errefortzuetarako dirulaguntzak bideratzea. 2009-10	3000	Eskola orduz kanpo euskara errefortzuak antolatzen dituzten ikastetxeei dirulaguntza eman ohi die Udalak.
1.a.07.b. UEU. Laguntza-eskariak bideratu.	600	UEUra joaten diren bergararrei matrikula eta egoitza ordaintzen zaie, urterako izendatutako aurrekontuaren barruan. Eskaririk ez bada, diru hori UEUra bideratzen da.
1.a.07.c. Dirulaguntza, Ikastolen jaiak	3000	Honako jai hauei ematen zaie laguntza: Kilometroak, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Araba Euskaraz.
1.a. Irakaskuntza esparruaren aurrekontua guztira:		50300

1.b. Euskalduntze-alfabetatzea

Esparruko ildo nagusiak

Azken urteetan azpibatzen diren arlo honetako lan batzuk eta horiekin jarraitu nahi da:

- Matrikulazioak sustatzeko kanpainak.
- Berriketaren programa.

Bien kasuan, zela hobetu edo zabaldu aztertzen dihardu lantaldeak, baten alfabetatu eta euskaldundu diren pertsonen eredu zabaltzeko ahaleginetan eta Berriketaren egitasmoaren kasuan, gazteen artean eta gurasoen artean zabaltzeko eta "hikalagun" ere bultzatzeko.

Horietaz aparte, ikastaro berezituagoak ere eskainiko dira: etorkinentzako harrera ikastaroak, bertako euskara lantzekoak, merkatari eta ostalarientzakoak... Etorkinen arloari arreta berezia jarri zaio azken urteetan eta ildo horretan jarraituko da Mankomunitatean euskara teknikariekin sortutako lantaldean.

Bestalde, herritarrei euskara ikasteko laguntzak eskaintzen ere jarraituko da.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
1.b.01.a. Euskalduntze-alfabetatzeko azpibatzen diren jarduna dinamizatu.	0	Euskalduntze-alfabetatzeko azpibatzen diren honako ordezkariak osatu dago: Udal Euskaltegia, AEK, Jardun, HHI/EPA eta Udala. Berriketaren egitasmoarekin eta matrikulazio kanpainarekin jarraitzeaz gain, gai honen inguruan beste ekimen batzuk egin daitezkeen ere aztertuko du lantaldeak.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
1.b.04.a. Euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatzeko ekimenak sustatzea: matrikulazio kanpainak, eta abar.	1500	Euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatzeko moduak aztertzen ari gara eta alfabetatu edo euskaldundu diren herriko pertsonen eredu zabaltzeko matrikulazio kanpaina zabaldu nahi da.
1.b.04.b. Berriketaren programari jarraipena ematea.	14000	Izan duen arrakasta ikusita, programa sendotu eta egonkortu nahi da. Arreta berezia jarri nahi da hurbiltzen diren euskaldun berriei helburuak garbi lagatzeko: euskaltegitik kanpo euskaraz berba eginez konfiantza hartzea eta erabilera esparruak zabaltzea. Egitasmo honen inguruan, osagarri batzuk antolatu daitezkeen ere aztertuko da: hika-lagun eta abar.
1.b.04.d. Egonaldiak familia euskaldunetan, familien izen-ematea bultzatzea.	0	HABEK sustatutako Programa honen bidez, euskara ikasten edo hobetu nahian, nahiz bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari familia euskaldun batean hilabete bat edo bi pasatzeko aukera ematen zaio (uztailean, abuztuan edo irailean) eta, aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera ere ematen zaio. Gaian interesa izan dezaketen harrera-familiei informazioa helaraztea eta tramitazioan laguntzea planteatzen da.
1.b.04.e. Etorkinentzako departamentu arteko programa bideratzea.	0	Etorkinen gaiak eragiten dien beste udal zerbitzuekin lankidetzan etorkinentzako programa integratzaile eta kohesionatzailea bideratzea, tartean, etorri berrientzako eta bertakoentzako ekintzak bultzatuaz. Programa honetan txertatuko da, besteak beste, etorkinentzako harrera bideratzea.
05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: eredu material, ikastaro, erabilgune...		
1.b.05.a.1. Etorkin helduentzako euskara klaseak bideratu, Udal Euskaltegiarekin koordinatuta. 2008-09.		2004an hasi ginen etorkin helduentzako ikastaro eskaintza bereziarekin. Orduetik, 60 orduko AISA ikastaroak urtero eskaini dira, Udal Euskaltegiarekin elkarlanean. Urte batean igandetako talde berezi bat ere antolatu zen, baina erantzun eskasa izan zuenez, ez da gehiago antolatu. 2008-09an ere 25 lagun dabilta euskara klaseetan.

1.b.05.a.2.Etorkin helduentzako euskara klaseak bideratu, Udal Euskaltegiarekin koordinatuta. 2009-10.	0	2004an hasi ginen etorkin helduentzako ikastaro eskaintza bereziarekin. Ordutik, 60 orduko AISA ikastaroak urtero eskaini dira, Udal Euskaltegiarekin elkarlanean. Urte betaan igandetako talde berezi bat ere antolatu zen, baina erantzun eskasa izan zuenez, ez da gehiago antolatu. Euskararekin lehen harremana izateko oso egokiak dira AISA I eta II ikastaroak eta eskaria dagoen bitartean eskaintza egiten jarraitzea planteatzen da.
1.b.05.b. Euskara ikasteko saio bereziak antolatzea: ostalarientzakoak, bertako euskara zuzentzeko ikastarotxoak, etab.	0	Ostalarientzako ikastaro berezia eskaini zen orain dela urte batzuk eta ez zen taldea osatu baina berriz ere eskaintza egitea egokia ikusi da. Bestalde, herriko merkatarien artean edota elkaratekiko hitzarmena dela eta, bestelako premiarik ikusiz gero horiei erantzuteko ahaleginak egingo dira. 2009ko urtarrilean egingo da jendaurreko zerbitzuetan lanean dabiltzanendako eskaintza berezia.

07. Dirulaguntza

1.b.07.a.1. Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenendako diru-laguntzak bideratu. 2008-09	3000	Udal euskaltegiak ematen dizkie laguntzak bertan dabiltzan ikasleei. Hemen planteatzen ditugun laguntzak Udal Euskaltegitik kanpo (beste euskaltegi batzuk, barnetegiak...) euskara ikasten duten ikasleei bideratuko zaizkie euskalduntzen edo alfabetatzen diharduten bergarar guztiek laguntza bertsuak izan ditzaten.
1.b.07.a.2. Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenendako diru-laguntzak bideratu, 2009-10.	0	Udal euskaltegiak ematen dizkie laguntzak bertan dabiltzan ikasleei. Hemen planteatzen ditugun laguntzak Udal Euskaltegitik kanpo (beste euskaltegi batzuk, barnetegiak...) euskara ikasten duten ikasleei bideratuko zaizkie euskalduntzen edo alfabetatzen diharduten bergarar guztiek laguntza bertsuak izan ditzaten. Publizitate gehiago egin beharra ere ikusi da eta horretan ere ahalegina egingo da.
1.b.07.c. Udal Euskaltegiarentzako laguntza arrunta.	267599	Udalak Udal Euskaltegiari bideratzen diot laguntza.
1.b.07.d. Udal Euskaltegiaren inbertsioak finantzatzeko laguntza.	3860	
1.b.07.e. Korrikarentzako dirulaguntza.	3000	2009ko martxoan izango da Korrika.

1.b. Euskalduntze-alfabetatzea esparruaren aurrekontua guztira: 292959

1.c. Familia

Esparruko ildo nagusiak Bi ildo nagusitan egin nahi da lan arlo honetan:

1.- Sentiberatzea. Haurdun daudenak eta guraso izan berri direnak sentiberatzeko aholku batzuk eta materiala banatzen jarraituko da eta Debagoieneko mankomunitate mailan euskara teknikariek sortutako lantaldean bestelako estrategia batzuk ere aztertzen jarraituko da.

2.- Transmisiorako baliabideak eskainiko dira: gurasoentzako ikastaro berezituak, euskarazko produktuen katalogoa, euskarazko jolasen DVDa, eta abar

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
1.c.01.a Familia-jarraipenari buruzko egitasmoa bailara mailan aztertzen jarraitzea.	0	Debagoienean sortutako euskara teknikarien bilgunean aztertu izan da familia-jarraipenari buruzko egitasmoa eta azken urteetan zenbait lan egin dira (guraso berriendako materiala, jolas eta kanten DVD, emaginendako materiala...). Egitasmo honekin aurrera jarraitzea planteatzen da; adibidez, beste gai batzuen inguruan gurasoentzako antolatutako hitzaldietan euskararen inguruko mezuak zela txertatu ere aztertzea komeni da.
03. Hitzarmenen dinamizazio orokorra		
1.c.03.a. Haurtzaindegiekiko elkarlana bideratu.	0	Azken urteetan izan dira zenbait harreman eta Irakaskuntzako azpibatzerdean parte hartzeko ezintasuna adierazi badute ere, gurasoei bideratuta sortu izan dugun materiala eta informazioa zabaltzeko orduan elkarlanean dihardugu. Elkarlan horretan aurrera egitea planteatzen da.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
1.c.04.a. Umea izan berri duten bikoteak sentiberatzeko programa bideratzea.	500	Umea izan berri duten bikoteak trasmisioaren garrantziaz sentiberatzeko programa bat da hau. Aurreko hilabetean familia izan dutenei umeari etxean euskara transmititzeko duen garrantziaz jabeatzeko material bat bidaltzen zaie: gutuna, aholkuen diptikoa, hiztegitxoak, kanten liburuxka eta CDa eta autorako pegatina. 2007an Debagoieneko mankomunitateak sortutako materialarekin hasi ginen eta bide horretan jarraitzea planteatzen da.
1.c.04.b. Euskarazko produktuen katalogoa zabaldu. 2009-2010	900	Ekintza honen helburua euskarazko kultura eta aisiako produktuen eskaintza ezagutzera ematea eta produktu horien eskaera ugaltzea da. Horretarako, azken urteetan zenbait udal eta mankomunitateren artean produktuon katalogo bat argitaratu eta banatu da eta horrekin jarraitzea planteatzen da.
05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduak material, ikastaro, erabilgune...		
1.c.05.b. Gurasoentzako ikastaroak: bertako euskara lantzeko ikastaroa. 2008-09	0	"Gehixago eta Hobeto" programaren barruan eskoletan aztertutakoa landuaz, geure euskara aberasteko 10 orduko ikastarotxo antolatuta izan da bi urtetik behin. Partaide gehienak gurasoak eta aisialdiko begiraleak izan ohi dira eta arrakasta duen bitartean aurrera jarraitzea planteatzen da.
1.c.05.c. Umeentzako jolas eta kanten DVDa bideratzea.	0	2004an familiak transmisioan duen eragina eta euskararen transmisioa bultzatzeko moduak aztertu ziren Debagoieneko euskara teknikarien bilgunean eta harrez gero, bilgune horretatik bideratzen dira esparru honetako hainbat gai. 2005ean ume jolasen DVDa prestatu zen eta aurreko ikasturteetan bezala, 4 urteko umeen gelatan banatzen jarraitzea planteatzen da.

1.c.05.d. Haurdunentzako liburu eta DVDa.

0 Debagoieneko Mankomunitatetik sortu zen materiala eta Udaletik emaginari eskuratzen zaio eta honek banatzen du.

07. Dirulaguntza

1.c.07a. Gurasoentzat sentsibilizazio hitzaldietarako dirulaguntzak ematea.

0 Irakaskuntzako azpibatzerdean proposatu zen egokiagoa dela gurasoak sentiberatzeko hitzaldiak ikastetxeetan bertan antolatzea eta, hori kontuan izanda, Euskara Batzardeak 2007an erabaki zuen ikastetxeei halakoetarako dirulaguntzak eskaintzea. Dena den, 2008an inolako eskaririk izan ez denez, gaia berraztertu egingo da. Bestalde, beste gai batzuen inguruan gurasoentzako antolatutako hitzaldietan euskararen inguruko mezuak zela txertatu ere aztertuko da.

1.c. Familia esparruaren aurrekontua guztira:

1400

2.a. Administrazioa

Esparruko ildo nagusiak 2009. urtea, administrazioaren arloaren gaineko gogoeta sakona egiteko, AEBEren IV. plangintzaldia diseinatzeko eta hurrengo urteetarako oinarri sendoak finkatzeko baliatu nahi da.

Horren baitan aztertuko dira, besteak beste, azkeneko urteetako gestio-planetan jaso baina bideratu ezin izan diren zenbait gai :

- UHE aplikazio informatikoa abian jartzearena, langileei erraztasunak emate aldera bere garaian sortu zen arren, hainbat arrazoi direla eta oraindik ez baitugu erabili.

- Zerbitzuen kontratazioarako irizpideak behingoz zerbitzu guztietan sistematikoki aplikatzeko bidean jartzea.

- Zuzenketa-lanen gaia: langileen hizkuntza autonomia eta kalitatea.

- Euskararen ahozko erabilera bultzatzea.

Horretaz aparte, prozedura nahiko finkatuta duten ekintzekin jarraituko da: prestakuntza, hizkuntza eskakizunen azterketak...

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
00. Arautzea, hizkuntza irizpideak finkatzea		
2.a.00.a.1. Hizkuntza irizpideak, lanpostu berrien hizkuntza eskakizunak zehaztu.	0	Udaleko lanpostu zerrenda onartzean, lanpostu berriei ezarri beharreko hizkuntza eskakizuna eta derrigortasuna zehaztea.
2.a.00.b. Udalaren zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza irizpideak berraztertu, onartu eta betearazteko bideak jorratu.	0	Udalak herritarrei zuzendutako zerbitzuak azpikontratatzan dituen hizkuntza irizpideak betetzeko urratsak eman. Udalak subkontratutako kirol ikastaroetarako erabilera irizpideak finkatzea eta euskararen erabilera bultzatzea Udalak barrurako egiten dituen azpikontratazioetan hizkuntza normalkuntzaren aldetik urratsak emateko bideak jorratu.
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
2.a.01.a.1. Hirugarren plangintzaldiaren ebaluazioa eta IV.aren planifikazioa.	0	2008an onartu du Udalbatzak Udalean euskararen erabilera indartzeko plan oinarritzkoa. 2009an egoeraren diagnostikoa eta plan zehatzak moldatuko dira.
2.a.01.b. AEBE komunikazioa. Komunikazio zirkulua	0	- Komunikazio zirkuluan 2008-11 planaren zirriborroari egiteko ekarpenak jaso. - III.plangintzaldiaren balorazioaren berri eman. - IV. Plangintzaldiaren diseinua landu. - Informazioa langile guztiengana era eraginkorrean iristen dela ziurtatu.
2.a.01.c.1. Osasungintza euskalduntzeko egitasmoak indartzeko bideak aztertu.	0	Osasungintza euskalduntzeko egitasmoen berri jakin eta horiek indartzeko bideak aztertu, UEMArekin lankidetzan.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
2.a.04.a.2. UHE sustatzeko bestelako ekimenak.	0	Enpresa eta bestelako erakundeekin harremanak euskaraz izateko tramiteak burutu: enpresa edota erakundeen idatziak gaztelania hutsez jasotzen dituzten langileen ohartarazpenak jaso, harremanak euskaraz izateko proposamena egin, jarraipena egin,.....
2.a.04.b.1. Langile berriei AEBE planaren berri eman.	0	Langile berriak Udalean lanean hasi ahala AEBEren eta Udaleko hizkuntza politikaren berri eman.

2.a.04.c.1.. Udal langileen ahozko jardun ohikoa euskalduntzeko saioak eratu.	0	Udal langile batzuen arteko gaztelaniaz aritzeko ohitura aldatzeko tailerrak eratu eta aldaketari eusteko estrategiak landu eta jarraipena egin. Besteak beste, Udaltzaingoko langileekin egindako saioen ondorengo jarraipena.
---	---	---

05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduzko material, ikastaro, erabilgune...

2.a.05.a.1.a. Hizkuntza prestakuntza bideratu: klase arruntak 2008-09	0	Langileen hizkuntza prestakuntza hobetzeko eskolak jasotzen dituztenen asistentziaren jarraipena eta ebaluazioa. Besteak beste, aukeren berri eman, baldintza eta bebearren berri eman, prest agertzen direnen eskabideak tramitatu eta eskoletan dabilzanean asistentziaren eta ebaluazioaren jarraipena.
2.a.05.a.2.Hizkuntza kalitatea bermatzeko trebakuntza-saioak antolatu, UEMAREN laguntzaz.	0	UEMAK, IVAPekin elkarlanean, zenbait trebakuntza saio prestatu eta ematen ditu. Era horretako ikastaroa antolatuko dugu, bereziki, teknikarien hizkuntza kalitatea eta autonomia indartze aldera.
2.a.05.b.1. Inprimaki eta idatzi ereduak kalitatearen ikuspegitik eguneratu, beharra sortu ahala.	0	Kalitatearen ikuspegitik zaharkituta gelditu diren udal erabilerako inprimaki eta idatzi ereduak berriztu eta langileekin adostu. Terminologia aldetik egin beharreko egokitzapen eta aldaketak egiteko azterlana egin eta langileekin adostu.
2.a.05.c Udalarekin euskaraz zerrenda eguneratu eta erabilera erraztu.	1000	Zerrenda eguneratu eta langileek zerrenda kontsultatzeko bideak erraztu. Horretarako aplikazio informatikoren bat molda litekeen aztertuko da.
2.a.5.a.1.b. Hizkuntza prestakuntza bideratu: klase arruntak 2009-2010.	0	Langileen hizkuntza prestakuntza hobetzeko eskolak jasotzeko aukeren berri eman. Baldintza eta bebearren berri eman. Prest agertzen direnen eskabideak tramitatu. Eskoletan hasten direnen asistentziaren jarraipena eta ebaluazioa.

2.a. Administrazioa esparruaren aurrekontua guztira: 1000

2.c. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Esparruko ildo nagusiak Bi lan-ildo nagusi aipatuko genituzke esparru honetan: alde batetik, gaia lantzeko gune bat sortzea eta, bestetik, EBPnko beste esparruekin zehar lerro funtzioa betetzea, hau da IKTen aldetik euskaraz dauden aukeren berri ematea.

Horrek berak ekarri beharko luke, jakina, esparru bakoitzak IKTen arlo honi behar duen arreta eskaintzea.

Bestalde, orain sarean sakabanatuta ditugun EBPnren inguruko gai guztiak (hiztegia, toponimia, ahotsak...) interneten dominio berri batean batuta edukitzeko bidea egin nahi da.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
2.c.01.a. EABko azpitaldeen dinamizazioa, IKT.	0	Teknologia berrien esparruko azpibatzordea osatu eta dinamizatzea. Orain arteko kideei berriak gehitu (ikastetxeetakoak, dendetakoak...) eta lanketa presentziala eta online bidezkoa bideratu.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
2.c.04.a. IKTTetan euskaraz dauden aukerak gizarteratzea.	1000	Bergarako Udalak eskatuta, 2008an moldatu zuen CodeSyntax enpresak IKTTetan dauden euskarazko baliabideak ezagutzera emateko proposamen bat. Proposamen hori Euskararen Aholku batzordearen bilera batean aurkeztu zen eta bertan erabaki zen bi aurkezpen saio bideratzea, bat orokorra eta beste bat ikastetxeei begirakoa.
2.c.04.b. IKT dendetan euskarazko eskaria sustatzea.	1000	Teknologia berrizko produktuak (ordenagailuak, telefono mugikorrak...) eskaintzen dituzten dendetan euskarazko eskaria sustatzeko kanpaina bideratzea.
2.c.04.c. Interneteko nabigatzaileak euskaraz jartzeko kanpaina sustatu.		Interneteko nabigatzaileak (Internet explorer, Fire Fox...) euskaraz jartzeko kanpaina bideratu.
05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduzko material, ikastaro, erabilgune...		
2.c.05.a. Udal webgunea Euskara Zerbitzuko gaien aldetik moldatu, eguneratu eta osatu.	3000	Webgunean badaude hainbat informazio euskararekin lotuak. Horiek aldian-aldian eguneratu eta osatuko dira. Webgunearen mantenimendu-lana izango da, alde batetik, beraz. Bestalde, webgunearen euskara atala moldatu eta osatu egin nahi da dominio berri batean orain sakabanatuta dauden edukiak (hiztegia, toponimia...) batuta.
2.c. Informazioaren eta komunikazioaren esparruaren aurrekontua guztira:		5000
teknologia berriak		

2.d. Enpresa-mundua

Esparruko ildo nagusiak

Bi multzo bereiziko genituzke esparru honetan:

Merkataritza eta zerbitzu arloa. Alde batetik, irudi korporatiboaren inguruan hainbat urtetan garatzen dihardugun lanarekin jarraituko da eta, bestetik, herritarren eskaria handitzeko zenbait ekimen bultzatuko dira.

Industriari dagokionez, berriz, une honetan impasse batean dagoen arloa da eta, hizkuntza normalkuntzaren aldetik oso garrantzitsua izanik, komeniko litzateke zenbait gairen inguruan erabakiak hartzea: bailara mailako sustapena, dirulaguntzak...

Planteatzen diren ekintza batzuen inguruan badira hainbat zalantza, beraz.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
2.d.01.b. Lan-munduko esparruko azpibatzerdea dinamizatu.	0	Lan-munduko euskara planak abian jartzeko prozesuaren barruan 2005ean eratu zen lan-munduko azpibatzerdea, sektoreko agenteekin. Batzorde hori dinamizatzearekin lotutako ekintzak jasoko ditugu hemen. Planak martxan dituzten enpresa guztiak azpibatzerdera gonbidatuko dira aurretik.
02. Jarraipena eta ebaluazioa		
2.d.01.c.- Etxez etxeko propagandaren jarraipena egin eta neurriak planteatu.		Etxez etxeko propagandaren jarraipena egin eta neurriak planteatu.
2.d.02.a. Kutxarekin hitzarmena sinatzea eta segmentua egitea.	0	2008an sinatu zuten Debagoieneko hainbat udalek Kutxarekin hitzarmena. Horren segimendua egitea planteatzen da hemen.
03. Hitzarmenen dinamizazio orokorra		
2.d.06.a. Euskara Merkataritzara programa bideratzen jarraitu.	500	Urte dezente daramatza udalak merkataritzan euskara sustatzeko Euskara Merkataritzara bideratzen. Programa honen barruan hainbat zerbitzu eta produktu eskaintzen dira. Horretan egiten den ahalegina handia denez, komeniko litzateke orain arteko lana baloratzea eta izan litezkeen hobekuntzak proposatzea. Aztertzea izan liteke UEMAK dituen sektorekako hiztegiak erabiltzea.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
2.d.04.d.- Mikroplangintzak eragin handiko establezimenduetan.	0	Eragin handiko establezimenduetan mikroplangintzak martxan jartzeko aukera aztertuko da. Eroskiren jarraipena egingo da.
2.d.04.f.- Dendari eta kontsumitzaileak sentiberatzeko egitasmoa bideratu bailara mailan. AURREKONTUA	0	Merkataritza arloko eskaria eta eskaintza handitzea helburu izango lukeen kanpaina bat antolatu nahi litzateke. Zenbait ideia landu dira.
2.d.04.j.-Enpresetako sustapen lana bideratu bailara mailan. ??? AURREKONTUA...	2000	Bailarako enpresen artean egin beharreko sustapen lana modu bateratuan egiteko aukera aztertuko da: eragilea nagusia nori iango den, nola egin....

2.d.04.k.- Lanbide heziketan euskara planen gaineko informazioa eskaini.	1500	Lanbide heziketako ikasleei enpresetako euskara planen inguruko informazio saioak eskainiko dizkiete enpresetan planak bideratzen dituzten teknikariek.
2.d.04.l.- Errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatzeko kanpaina.	1500	Herritarrei eta aitortpena egin ohi duten profesionaleri bideratutako kanpaina egitea planteatzen da. Bailara mailan egingo litzateke.
2.d.04.m. Merkataritzako aplikazioak euskalduntzeko bideak bultzatzea.	0	Gero eta gehiago dira dendetako diru-kontuak aurrera eramateko aplikazio informatikoak erabiltzen dituztenak. Aplikazio horiek euskaraz jartzeko aukerak aztertuko dira: zer aplikazio dagoen aztertu, dendariei horren berri ematea, egon litezkeen laguntzak aztertzea...
2.d.04.n.- Profesional euskaldunen gida ezagutzera ematea.	0	UEMA barruan landutako ekimenen artean profesional euskaldunen gida osatzeko lehen urratsak bideratu ziren 2008an. Gida hori ezagutarazi eta bere erabilera bultzatu nahi litzateke.

05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduak material, ikastaro, erabilgune...

2.d.05.c.- Lanerako hastapeneko ikastaroetan euskara txertatzea.	0	Lan sailak eta INEMek antolatzen dituzten Lanerako Hastapeneko ikastaroetan euskara arloa ere txertatzea.
--	---	---

06. Laguntza teknikoak: zuzenketak, aholkularitza, itzulpenak...

2.d.06.b. Inprenta eta dendetako itzulpenak eta zuzenketak	0	Inprenta, dendari eta abarrei itzulpen eta zuzenketak egin ohi zaizkie irizpide batzuen barruan.
--	---	--

07. Dirulaguntza

2.d.07.a. Dirulaguntzak enpresentzat euskara planak aurrera eramateko. AZTERTZEKO	22500	2005ean eman zitzaizkien lehen aldiz euskara planak bideratzen ziharduten enpresei dirulaguntzak. Dirulaguntzak 3 urtetan zehar jasotzeko aukera aurreikusten zenez, planarekin jarraitzen dutenekin zer egin aztertu beharko da.
2.d.07.b. Webguneak euskaratzeko diru laguntzak.	2000	Webguneak euskaratzeko laguntzak eman merkatari, elkarte eta abarri.

2.d. Enpresa-mundua esparruaren aurrekontua guztira: 30000

2.h. Esparru soziokulturala

Esparruko ildo nagusiak 2008an sinatu da EINGOU hitzarmena. 2009ari begira dugun helburu nagusienetako bat hitzarmen horren jarraipen eta dinamizaziorako aplikazio informatikoa sortu eta jarraipen ahalik eta zehatzena egitea da, bereziki, irakas-jarduerei begira: entrenamendu, ikastaro...

Begiraleei begira, berriz, euren formazioa bultzatzeko dirulaguntzekin jarraitu egingo da eta hizkuntza kalitatea hobetzeko ahaleginetan jarraituko dugu, unitate didaktikoak eskainiaz, etab.

Bestalde, herrian egiten zen lanaren indargarri orain dela urte batzuk Debarroko udaletako kirol eta euskara zerbitzuek KIROLA EUSKARAZ programa jarri zuten abian eta 2009an ere programa horrekin jarraitu nahi da: euskarazko materiala sortu, entrenatzaile eta monitoreak prestatzeko euskarazko ikastaroak antolatu, monitore euskaldunen artean erabilerarako hizkuntza irizpideak landu, guraso eta entrenatzaileak sentiberatzeko materialak landu eta abar.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
00. Arautzea, hizkuntza irizpideak finkatzea		
2.h.00.a. Kirol entrenatzaileei entrenamenduetarako hizkuntza-irizpideak eskaini	0	Kirola Euskaraz programatik 2007an kirol monitoreek hartzaileen euskara-ezagutzaren arabera izan beharreko hizkuntza jokabideen inguruko triptiko bat prestatu zen, Udalek kontratatutako kirol monitoreei banatzeko. Herriko kirol taldeetan ere banatzea eta, ahal den neurrian, entrenatzaileekin batera aztertzea eta erabileran eragitea da hemendik aurrerako erronka.
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
2.h.01.a. Bailara mailako “Kirola Euskaraz” programarako sortutako lantalde orokorrean parte hartu	1550	Debagoien eta Debabarreneko udaletako Euskara eta Kirol teknikariak parte hartzen dute “Kirola Euskaraz” lantalde honetan eta programaren helburuak Bergarako EBPNn proposatzen direnekin guztiz bat datoenez, interesgarria da Euskara Zerbitzuak ere honetan parte hartzea.
2.h.01.b. “Kirola Euskaraz” programaren barruan sortutako “sentiberatze lantaldean” parte hartu.	0	Bailara mailako “Kirola Euskaraz” programaren barruko taldeetako bat da sentibilizazio taldea. Helburu nagusiak hauek dira: monitoreak, entrenatzaileak, gurasoak... euskararen erabileraren inguruan sentiberatzea. Bergarako EBPNn proposatzen direnekin guztiz bat datoenez, interesgarria da Euskara Zerbitzuak ere honetan parte hartzea.
2.h.01.c. Udaleko Kirol teknikariarekiko eta Kultura eta Hezkuntza teknikariarekiko elkarlana bideratzea	0	Hitzarmena dela eta, herriko kirol taldeekin, kultura elkarteekin eta Hezkuntza arloko zenbait entitateekin lan egin behar dugunez, Udal teknikarion arteko elkarlana ere bideratu beharra dugu; esate baterako, taldeei dirulaguntzak emateko orduan hizkuntza-irizpideak betetzen direla ziurtatzeko moduak aztertu behar dira.
03. Hitzarmenen dinamizazio orokorra		
2.h.03.b. Eingou hitzarmena kudeatzea, horretarako aplikazio informatikoa sortu eta erabiliz.	2000	Eingou Hitzarmena sinatu zen 2008an eta horren kudeaketa errazteko aplikazio informatikoa sortzea ere onartu da. 2009an hitzarmen horren kudeaketa bideratuko da, helburuak eta lehentasunak aintzat hartuta.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
2.h.04.a. Herriko talde/elkarteei euskaraz dagoen materialaren berri eman	0	Bergaran batik bat ume eta gazteekin lanean diharduten talde eta entitateei euskaraz dagoen materialaren berri ematea planteatzen da (arloka interesaren arabera): kirol arloko fitxa didaktikoak, kontsulta-liburuak, hiztegiak, idatzi ereduak, aplikazio informatikoak, ordenadorerako zuzentzaile ortografikoak...

2.h.04.b. Kirol entrenatzaileak, monitoreak, irakasleak, gurasoak... sentiberatzeko materialak sortu eta zabaldu	0	"Kirola Euskaraz" programako sentiberatze lantaldeak bereziki aztertzen du gai hau eta azken urteetan sortu ditu zenbait material, adibidez entrenatzaileentzako esku-orriak eta kartelak, Eskola Kirolean dabiltzan umeen gurasoendako informazio-karpetak... Hauek banatzen jarraitzea planteatzen da eta beste zerbait sortzea komeni den ere aztertuko da.
--	---	--

05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduzko material, ikastaro, erabilgune...

2.h.05.b. Kirol entrenatzaile/monitoreei formazioa eskaini eta euskararen erabileraren inguruko mezuak txertatu	0	"Kirola Euskaraz" programatik antolatzen dira urtero monitore-entrenatzaileak prestatzeko kirol ikastaroak. Horiekin jarraitzea interesgarria ikusten da, eta monitore-entrenatzaileak euskararen erabileraren inguruan sentiberatzeko egokiena ikusten da kirol arloko ikastaroetan txertatzea euskararen erabileraren inguruko mezuak ere. Izan ere, azken urteetan bi ahalegin egin dira Bergaran kirol entrenatzaileentzako sentiberatze-ikastaro bereziak antolatuz, baina erantzuna oso eskasa izan da.
2.h.05.e. Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) euskararen erabilera bermatu.	40000	Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludoteketan, kultur etxeetan...) hainbat ekintza antolatzen dira, jolasak, ikastaroak, ikuskizunak, erakusketak zein tailerrak. AEBE planean jasota dagoenari jarraituz, gisa honetako ekintzetan euskarazko eskaintza bermatu behar du udalak. Jardunaz Udaleko beste sail batzuk arduratzen dira eta Euskara Zerbitzuak jarraipena egingo die.

06. Laguntza teknikoa: zuzenketak, aholkularitza, itzulpenak...

2.h.06.a. Hitzarmena sinatzen duten entitateei itzulpenetan eta euskarazko testuen zuzenketetan laguntzea	0	Hitzarmena sinatu duten entitateei euskarazko testuak zuzentzeko eta itzulpenak egiteko laguntza (baldintza batzuekin) eskainiko zaie.
---	---	--

07. Dirulaguntza

2.h.07.a. Euskaraz antolatzen diren begiraleentzako ikastaroetarako dirulaguntzak eskaini	1800	Aisialdiko begirale edota zuzendari titulua lortzeko ikastaroa antolatu izan du azken urteetan Debagunek. Bergarako partaideei dirulaguntza eskainiko die Udalak
2.h.07.b. Elkarteei webgunea euskalduntzeko dirulaguntzak ematea.	0	Euskararen erabilera bultzatzeko "hitzarmena" sinatzen duten elkarteei webgunea euskalduntzeko dirulaguntza eskainiko zaie. 2.d.07.b. ekintzarekin lotua. Han dago aurrekontua.
2.h.07.d. Dirulaguntza Bertsularien lagunak.	600	Iparraldeko Bertsularien Lagunak elkartearentzako laguntza.
2.h.07.e. Elkarte gastronomikoetako programa informatikoak euskalduntzeko bideak zabaltzea.	1000	Gero eta gehiago dira diru-kontuak eramateko aplikazio informatikoak dituzten elkarteak. Aplikazio horiek euskaraz jartzeko sustapen lana egingo da: dauden aukeren berri eman, laguntzak eskaini...

2.h. Esparru soziokulturala esparruaren aurrekontua guztira: 46950

3.a. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

Esparruko ildo nagusiak Aurretiko urteetatik bideratzen dihardugun eta oraindik bukatu gabe ditugun lanetan garrantzitsuena Toponimiakoa da. Hori bukatzea izango da, beraz, lanik handiena.

Bestalde, dauzkagun materialei (hiztegia, ahotsak...) ahalik eta erabilerarik handiena emateko ekintzak bideratu nahi dira: zenbait material didaktizatzea, ikastetxeetan aurkezpenak egitea...

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
3.a.01.a. EABko azpibatzaileen koordinazioa, Corpora eta hizkuntza kalitatea.	0	Euskararen Aholku batzailearen Corpus arloko azpibaldaileen ingurukoak (akta, bilera-dei...) jasoko dira hemen.
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
3.a.04.a. Euskara Zerbitzuak argitaratutako liburuen salmenta eta zabalkundea.	0	Asko dira Bergarako Udalak bertako euskara jaso eta zabaltzeko sortutako liburuak. Material horien zabalkunde ahalik eta egokiena zein izan litekeen aztertu beharko litzateke.
3.a.04.b. Herriko toponimiaren erabilera egokia bultzatu.	0	3.a.08.d. ekintzarekin lotua. Ekintza horretan adierazi moduan, 2009an gertu izan nahi dugu Bergarako toki-izendegi ofiziala. Izendegi hori hedabide, ikastetxe, posta-helbide eta abarretan egoki erabiltzeko bideak jorratu behar dira. Unean uneko beharrei (bide seinalizazioa, kale berrien izenak...) erantzun puntuala emango zaie eta gaia zabalago lantzeko bideak aztertuko dira. Helburu hori lortzeko tresna oso interesgarria izango zaigu moldatzen dihardugun eta webgunean jarriko dugun toponimoen datu-basea.
3.a.04.c. Euskalkiaren gaineko materialak ikastetxe, hedabide eta gainerako sektoreei aurkeztu eta materialok hedatzeko aukerak definitu.	0	Euskalkiaren gaineko materialak ikastetxe, hedabide eta gainerako sektoreei aurkeztu eta materialok hedatzeko aukerak definitu.
3.a.04.d. Abizenak euskarazko grafiaz jartzea bultzatu.	0	Une honetan abizenak euskarazko grafiaz jartzeko tramitazioa dezente erraztuta dago. Aldaketa hori sustatzeko kanpainak egitea planteatzen da.
05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduak material, ikastaro, erabilgune...		
3.a.05.a. Bergarako euskararen ahozko ondarearen interneteko fondoa osatzen jarraitu, materialak didaktizatu eta artxibora bideratzea.	5500	Bergarako euskararen ahozko ondarearen interneteko fondoa 2008an aurkeztu zen eta interneten dago dagoeneko. 2008an egin da Badihardugu elkartearekin hori osatzen jarraitzeko hitzarmena ere. 2009ra begira fondo horretako materialik onenak aukeratu eta ikastetxeetan erabiltzeko moldatzea proposatzen da. Azkenik, oraindik egiteko dagoen lana materialok artxibora bideratzea eta datu pertsonalen babeserako legea aintzat harturik erabilera-irizpideak finkatzea da.
3.a.05.b. Bergara aldeko hiztegiaren interneteko bertsioaren dibulgazioa egin.	0	2007an jarri da Bergara Aldeko Hiztegia interneten. Aplikazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko saioak eratu dira interesa azaltzen duten ikastetxeetan.

07. Dirulaguntza

3.a.07.a. Badihardugurekiko hitzarmena, dirulaguntza.	500	2001ean sinatu zuen Udalak Badihardugu elkartearen urteko jardun arrunta diruz laguntzeko hitzarmena. Hitzarmena urtez urte luzatzen da, alde bietakoren batek etetea eskatu ezik. Bertan zehaztutako dirulaguntza ematea eta Badiharduguren ekintzen jarraipena egitea izango da, beraz, ekintza honetako betekizuna.
---	-----	--

08. Ikerketa

3.a.08.d. Herriko toponimia nagusia normatibizatzea bukatu eta herriko toki-izendegi ofiziala finkatu eta datu-basea online jarri.	7200	2006az geroztik, interneten dago eta osatzen dihardugu herriko toponimiaren datu-basea. Horretatik herriko toki-izendegi ofiziala (auzo, kale, baserri, etxe eta abarren izenak jasoko dituena) aterako da. Lan horretan Euskaltzaindiaren aholkularitza beharko da. Aholkularitza horren kostuari dagokio hemengo gastua. Bestalde, 2007an Katastroa eguneratzearekin batera, toponimia txikia ere jasotzeari ekin zaio eta 2009an jarraipena emango zaio lan horri.
--	------	---

3.a. Corpus-plangintza eta euskararen esparruaren aurrekontua guztira: 13200 kalitatea

3.b. Hedabideak

Esparruko ildo nagusiak Ez dakigu tokiko hedabideen arloan (bereziki telebisten kasuan) zer aldaketa etor litezkeen 2009-10ean. Ez dugu ezer planteatzen baina aztertzea izango litzateke bailara mailan koordinazio-gune bat sortu eta zenbait gaitan izan beharreko jokabidea adostea.

2009ari begira, aurreko urteetan bideratu izan diren ekintzei eutsiko zaie: bailarako euskarazko hedabideentzako laguntzak, euskarazko hedabideen harpidetzak sustatzeko ekimenak...

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
04. Komunikazioa, sentiberatzea, sustapena		
3.b.04.a. Haur eta gazte aldizkarien irakurketa bultzatu, harpidetzak oparituaz.	2200	Koldo Eleizalde lehiaketako parte hartzaileen artean aldizkarien harpidetzak zozkatzen dira. Zenbait urtetan dihardugu bide honekin. Ekimenak bi helburu betetzen ditu hala: Koldo Eleizalde lehiaketako parte hartzea sustatzea eta haur eta gazteentzako euskarazko aldizkariak ezagutaraztea, bestetik.
07. Dirulaguntza		
3.b.07.a. Goienarekiko hitzarmenaren jarraipena bideratzea.	148000	EBPN 2009-2011 aldirako dirulaguntzak eta harremanak finkatuko dituen hitzarmena zehaztea.
3.b.07.b. Nazio mailako komunikabide batzuentzako dirulaguntza: Argia...	500	Nazio mailako komunikabideentzako diru-laguntza. Azken urteetan Argiari eman izan zaio.
09. Barne gestioak eta lan-gaiak		
3.b.01.b. GOITB ikusteko antenen errenta.	1150	San Migelen kokatuta dago GOITB herrian zabaltzeko antena txiki bat. Antena hori han izateagatik zelaiaren jabeari errenta bat ordaintzen zaio.
3.b. Hedabideak esparruaren aurrekontua guztira:		151850

3.c. Liburugintza

Esparruko ildo nagusiak Aurreko urteetan bezala, Koldo Eleizalde lehiaketa antolatzen eta saritutako lanei behar besteko zabalkundea ematen zentratuko gara esparru honetan, bereziki ahozko generoei garrantzia emanaz.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
05. Produktu eta zerbitzu eskaintza: ereduzko material, ikastaro, erabilgune...		
3.c.05.a. 2009ko Koldo Eleizalde lehiaketa moldatu, bideratu eta lanak argitaratzea.	10000	2009ko lehiaketaren zabalkundea egin, lehiaketa kudeatu eta saritutako lanak argitaratzea planteatzen da.
3.c.05.b. Koldo Eleizalde lehiaketetako 2010: oinarriak gertatu eta argitaratu..	300	Hurrengo ikasturtearen hasiera aldera 2010eko lehiaketen oinarriak gertatu eta argitaratu.
3.c. Liburugintza esparruaren aurrekontua guztira:		10300

4. Itzulpena/Zuzenketak

Esparruko ildo nagusiak 2008an gainditu ditugu, neurri batean, itzulpenaren inguruan genituen arazoak. Zuzenketez gogoeta egin eta nabarmen hobetu beharra dugu. Bestalde, aurten Hirigintzako Plan Orokorra itzuli nahi da eta hor itzulpen ona eta erabilgarria egiten dugu apustu handi bat.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
01. Planifikazioa, azterketak, esparruko lantaldeen koordinazio orokorra		
4.01.a Zuzenketa eta itzulpen lanak hobetzeko bideak jorratzea.	0	Itzulpen eta zuzenketen gaineko txostenean finkatutako puntuen betetzearen jarraipena egin.
4.01.d. Aldi bereko itzulpenerako tresneriaren aukerak aztertu.	0	Aldi bereko itzulpenerako tresneria izateak bai Udalera begira eta bai herriko entitateei begira aukerak eskaini ditzakeela uste dugu. Hori dela eta aukera horiek aztertu nahi dira eta egoki ikusiz gero, tresneria erosi eta erabilera bideratu.
09. Barne gestioak eta lan-gaiak		
4.09.a. Wordfast programaren mantenimendua.	1700	Wordfast programa erabiltzen da Euskara Zerbitzuan itzulpenak egiteko. Elektarekin kontratatatu da programaren mantenimendua.
4.09.b. Kanpoan egiten diren itzulpenak.	8000	Lan-bolada handiagatik edo dena delakoagatik kanpoko enpresaren bati ematen zaizkion itzulpenak. 2009ra begira Hirigintzako Plan Orokorra euskaratu behar denez, gerta liteke halako lanek pisu handiagoa izatea.
4.09.c. Hirigintzako Plan Orokorra euskaratzea.		Aurten onartuko da Hirigintzako Plan Orokorra. 700 orrialde inguruko dokumentua da. Gaztelaniaz egin da eta euskaratu egingo da.
4. Itzulpena/Zuzenketak esparruaren aurrekontua guztira:		9700

5. Elkarte orokorrentzako laguntzak

Esparruko ildo nagusiak 2007. urtean bukatu zen Jardun elkartearekin sinatutako agintaldiko hitzarmena. 2008an ere aurrekoen jarraipeneko sinatu da eta orain hurrengo urteei begirakoa lantzen dabilta Udala eta Jardun.

Era berean, Berbarentzako laguntza ere bideratuko da eta baita Kontseiluarentzako ere.

Ekintza	Aurrek	Ekintzaren azalpenak
07. Dirulaguntza		
5.01.a. Jardunekiko harremanak: hitzarmena berriztea eta jarraipena egitea.	90000	1991z geroztik Jardun euskara elkartearen urteko jarduna diruz laguntzeko agintaldiko hitzarmena egin izan dute Jardunek eta Udalak. 2004an egindakoaren indarraldia 2007an bukatu zen eta Udal Gobernuak eta Jardunek hurrengo urteetarako laguntza finkatzeko harremanetan dihardute. Hitzarmena sinatzea eta elkarrekiko lankidetzatza adostea izango da, beraz, helburua.
5.01.b. Aurreikusitako beste laguntza batzuk: Kontseilua.	2100	Kontseiluaren urteko jarduna diruz laguntzeko kopurua.
5.01.c. BERBarentzako laguntza, Euskararen Eguna eta beste.	4500	Berbaren urteko jarduna, bereziki Euskararen Egunaren ingurukoa, diruz laguntzeko hitzarmena egitea. Orain arte urtez urte egin izan da.
5.01.d. Aurreikusi gabeko beste laguntza batzuk	3500	Unean unean izan litezkeen beste laguntza eskari batzuei erantzutea.
5. Elkarte orokorrentzako laguntzak esparruaren aurrekontua guztira:		100100